

PROFEZIA

AITOR ZUBEROGOITIA ESPILLA

("Errenteriako Hiria" ipuin lehiaketa, lehen saria)

Kristo Aurreko 202. urtean ikusi nuen azkeneko bidez, artean orakuloek agindu zidaten unearen zain nengoelarik. Zama-ko porrota kontsumatzen ari zen eta laister Historiak Anibal Ausartaren izena bere orrietatik desterratuko zuen. Urrun gelditzen ziren jada Iberia penintsulan aintzina abiatu. Pirinio eta Alpeak gibelean utzi eta Trebi, Trasimeno eta Cannasen zaldi eta elefanteen laguntzaz erromatarrek zapuztu genituenekoak. Ezen atzeraka doan olatua ere indarberriturik bueltatzaten bait da eta gisa horretan ailegatu zen Publio Kornelio Scipio Kartagoko atarira. Anibalek bueltako bideari ekin behar izan zion eta orain Zaman ari ziren indarrak neurtzen.

Kristo Aurreko 202. urtea zen. Orduantxe ikusi nuen azkeneko bidez Anibal Ausarta, Zamako porrota kontsumatu eta lasterrera. Urte batzuk lehenago bezala erromatarrek berriz gailendu zitzaizkigun II. Punika Gudatean. Sisyphosen gisan, bere patuaren sententzia eskergara kondenaturiko herria zirudien Kartagok. Anibal Ausartak burdin, hauts, egur eta haragi odolduz osoturiko itsasoari begiratu zion. Erromatarek ez zuten errekirik izan. Alabaina, ez zen anpulturik irristatu bere masailaren amildegirantz. Eta bazekien ziklo luze baten amaiera zela. Bazekien Senegaleko urrea eta iberiako zilarrak ez zutela gehiago distiraturiko zela herriko eraikuntzatan. Bazekien halaber greziarrak euren porrota zela eta trufaka ariko zirela, eta merkatalgoan zein itsasoan zeukaten nagusitasuna bukatua zela. Eta hala ere, ortzemugan sasoi hagitz desberdinak agertzen hasi izanagatik, soilik aukeratuek ohi duten duintasunez eusten zion goiari.

Gauak arratsa erasotzen duen momentua gertu zegoen. Otso baten lantua entzun zitekeen urrunean. Gandu eta langarrez ehotako izara

Zamako guduzelaiko hilotzak estaltzen hasia zen. Euria hasi zuen derrepentean eta Denbora bera ere lanbroaren koordinadatan galduta egongo zen seguruenik, orakuloek Anibal Ausartari bere bizitza zeharo markatuko zuen sententzia helarazi ziotenean:

"Eraikitzeaz zegoen balizko Inperioa galdua duzu, Anibal. Galdua duzu baita Iberia erdian behiala ukan zenuen nagusitasuna. Akabo Baeculako arratsak, akabo Saguntumgo brisara. Baina hemendik gizaldi askotara garai berriak erneko dira eta gure herriak berriz igaroko du Gibraltarko itsasarte. Itxoitea besterik ez zaizu gelditzen."

Itxaropen izpi bat pausatu zen Anibalen begietan eleok aditzeaz batera, guztiok bait gara itxaropen-egarri eta ezinbestekoa zaigu garaipenen bat edo beste eguneroko ihardunean zutunik irauteko. Zoritxarrez, maiz errealtate gordinarekin topo egin eta gure ilusioak etsipenaren aintzirara lerratzen dira. Eta zer egin orduan, dena ilun eta goibel dagoenean, bazter batean jezarrri, leihotik at begiratu eta ondoko supermerkatu kutreko ardorik merkeena edan besterik. Edota, Anibal Ausartak bezala, trasteak oro batu eta betirako ezkutu. Betirako?

Leku ezkutu batean gordeta zegoen Anibal, urteen orgak orakuloek agindutako unea noiz ekarriko zain. Eta orduantxe ulertu nuen harrak hark esandakoa, Kartago Denborarik ez zuen herria zelako hura alegia.

Gordelekua txit erosoan izan arren, Anibalek kanpora atera nahi zuen. Kristo ondorengo VII. mendearen hondarrean zalaparta eta mugimendua somatu zituen lekorean. Haizeak ekarritako berba batzuk iritsi zitzaizkion: Gibraltar berriz gurutzatzeko eretia ei zen. Baina orakuloek itxoiteko esan zioten, abagadune egokiagoa helduko zela argudiatuz. Anartean, eguzkiak inguruetakoa paraje idorrek zigortuz zerraien.

Urte, lustro, hamarkada eta mendeak erreskadan igaro ziren. Bandera anitz altzarazi zen Historiaren mastara aurrekoa errefusatu eta proposamen berria, ineditoa luzatzen zela argudiatuz. Baina umeek -oraindik ere- negar egiten zuten mundura etortzean eta txakur deslaxiak uluak ibiltzen ziren udabarriero, erantzunik aurkitu ezinik, aldarrikapen berri ororen muinean aurrekoaren funts kontraesankor berbera gordetzen zelako.

Eta eguzkia ostendu zen arrats hartan orakuloek gordelekutik ilkitzeko tenorea zela xuxurlatu zioten Anibal Ausartari. Udagoienaren lehen aztarnak agertzen hasiak zirenean.

Euria ari zuen Anibal Ausarta mende askoren ostean berriz munduratu zen egunean. Euria pozteko zioa da kartagotarrantzat. Seinale ona zela otu zitzaion Anibali, eta erropatan pilaturiko hautsa astindu eta ortzemugarantz zuzendu zuen soa. Orakuloek norabidea adierazi zioten eta bideari ekin zion bere planta larderiatsuarekin, aldiro eskuineko eskua gerritik zintzilikatuta zeukan alfanjera eroaten zuelarik. Bideari ekin zion, bai, eta harrez geroztik bere pausak entzun nitzakeen, batbibatbibatbi, hurbiltzen, etenik barik, gero eta gertuago...

Abdelhafet Harrashidi kontrabandoari esker bizi zen, lantzean behin beste zenbait asuntutan parte hartzen bazuen ere. Aspaldi hartan negozioaren irabaziaz nabarmen hasiak zitzaizkion. Izan ere, gizaki-kontrabandoa, batere arriskutsua ez izateaz gain, askoz hobeto ordainduta zegoen. Tarifako itsasertza ilusi orduko bibote iletzudunak bere merkantzia uretara bidaltzen zuten eta buelta Tangerrera.

Toki anitzetatik heltzen zitzaion merkantzia Abdelhafet Harrashidiri: Aljeria, Tunisia, Sudan... Inoiz hegoafrikarak ere iritsi zitzaizkion. Jantzera eta pelaje mota bitxiak ere ezagunak zitzaizkiola uste zuen, baina alfanje eta guzti zetorkion tipo hura begiztatzen zur eta lur gelditu zen bibote iletzuduna:

- Hau ere ikusteko geneukan! Eta hi zein zirkotik eskapatu haiz?

Alfanjedunak ez zuen bapatean erantzun. Abdelhafet Harrashidi goitik behera aztertu zuen, erdeinuz, arrapostua eman baino lehen. Gero, itsasora begira egon ondoren -Tarifararako hamalau kilometroak bere soarekin neurtu nahiko balitu bezala-, potin zaharkiturantz zuzendu zituen urratsak.

-Eroan nazazu bestaldera. Bizkor. Denbora asko igaro dut une honen zain eta ez daukat gehiago itxoiteko asmorik.

Bere ahotsari agintzera ohituta dagoenaren tonu irmo eta izoiztua zerion. Baina ez bide dago morroiaren morroi izatea baino okerragorik eta Abdelhafet Harrashidi ez zegoen bere menpeko baten agintzaren entzuteko prest.

- Hi, esijitzen hasi behar al haiz? Oilar larregi diagok bazterretan lehendik ere. Ordaindu itzak 60.000 pezetan eta gero ikusiko diagu.

- Ez daukat diru hori.

- Ba orduan jai daukaku motel.

- Ez daukat diru hori eta edukiko banu ere ez nizuke emango. Berba larregi egin duzu. Zu bezalako kakarraldo batek ez dio ahotsik altxatu behar Anibal Ausartari.

Alfanjea atera eta bertan garbitu zuen. Potin barnean zeudenei mintzatu zitzairen ondoren:

- Partitzeko ordua dugu. Goazen.

Ipurtargiak abesten hasiak ziren abiatu zirenerako. Tangerreko badiako olatuen aparra oheratzeaz zegoen eta haitz nabarrek zehaztu ezinako zerbaiten esperoan zeuden itzal beltzak ziruditen. Hondartza ertzetik, itsaskaiok potinak utzitako uharari malenkoniaz begiratu zioten.

Gau ederra zen benetan. Milaka izar eta asteroide zegoen ortzearen pergaminoan zehan barreiatuta eta itsasaldeko brisara leunak potinekoren aurpegi zailduak ferekatzen zituen. Senegaletik etorria zen batek kantuan ziharduen. Gainontzekoak ixilik zeuden, olatuen joan-etorriari eta arraunen mugimendu uniformeari so, euren pentsamenduak Tarifako badien linburtzen ziren bitartean. Aldiro, gehiegizko pisuaren eraginez, ura sartzen zen txalupa barrura eta baldeen laguntzaz kanpora ateratzen zuten. Kresala bere mapa marratzuz zihoa marinel inprobisatuen aurpegietan. Eta bapatean Tarifako hondartza agertu zitzaizen begibistan. Senegalekoak kantuari utzi eta ahots marrrantatuz berba egin zuen:

- Hobe dugu potinetik salto egin eta kala ezkuturen batera igeri heltzea, ezen hondartzan poliziak izanen bait ditugu gure zain.

Denek baizko keinua egin zuten. Instant bat beranduago uretara salto egiten hasiak ziren.

- Eta zuk hori eta guzti egin behar al duzu igeri?

Anibal Ausartak gogor eutsi zion alfanjeari erantzun baino lehen.

- Bai; nire aitaren oparia da eta berari burla egitea litzateke berau hemen uztea.

Hurrengo bost segunduak gogoetatik murgildurik igaro zituen, uretara salto egin eta itsaso arrearen sahelera pitzatu zen arte.

Ia erdi itota iritsi zen lehorrera. Gehienak helduta zeuden ordurako. Minutu batzuk atsedean hartzen egon ondoren, besteei mintzatu zitzaizen. Anibal Ausarta zela jakiteak zemaion ziurtasunarekin:

- Goazen lagunak!!! Mendekuaren ordua heldu da azkenean!! Goazen!!

Zatozte nirekin eta inperio berria eraikiko dugu. Nehork ez du geldituko gure oldar basatia.

Inork jarraitzen ez ziola ikusirik, argudio hobeak ematen hasi zen:

-Zer? Bildur zarete? Gutxi garelako? Berdin da. Hogeitabost gara bakarrik, bai, baina euren presondegiak eraso, armak eskuratu eta gure kideak askatzean dena errazagoa izanen da. Goazen, gutxi gara baina haundia da oso gure bihotzen indarra. Zatozte nirekin!! Txiki-txiki egingo ditugu!!!

Baina inork ez zion jarraitu eta bakarrik abiatu behar izan zuen, alfanjea eskuan eta orakuloen profezia gogoan.

Tarifako cuartelilloan bertan atxilotu zuten, aurrean zetorkiona ikusita harri eta zur zegoen Bermúdez numeroa erasotzera zihoanean. Ziega barruan astebete inguru igaro ondoren, medikuek ez zela gaizkile arrunta eta beste egoitza egokiago batera eroan behar zutela adierazi zuten.

Goiz eguzkitsu batez etorri ziren bere bila. Lau tiporen artean dominatu behar izan zuten. Atzetik lotzen den alkandora jantzi zioten gero, eta furgoi zuri luzengan sartu. Furgoiak bere bideari ekin zion eta karririk atzean utzi ahala gero eta hurbilago senti nitzakeen Anibalen bihotz-taupada basatiak.

Nire bizitzako egunik goibelena izan zela esan dezaket, duda izpirik gabe. Zamako porrotaren ostean ere lur jota gelditu nintzen, bai, baina orduan behintzat orakuloek itxaropenaren atea zabalik utzi zidaten. Eta hark ematen zidan arnasak bizirik mantentzen ninduen. Baina Tarifako porrota eta gero, akabo guztia. Neure burua hiltzen saiatu nintzen, ni, Anibal Ausarta, bai, nahiago nuelako lurpean egon lotsa iraingarri hura jasan baino, baina ez zegoen ezer egiterik atzetik lotzen zen alkandorarekin, esku eta besoak mugitzea galerazten bait zidan. Zuriz pintaturiko eraikuntza handi eta baldar batera eroan ninduten. Etzan arazi ondoren zitzada sentitu nuen atzekaldean. Gero lo-

ak bere besoetan hartu ninduen. Burukomin itzelarekin esnatu nintzen handik ez dakit zenbat denborara. Atzetik lotzen den alkandora neukan oraindik soinean. Ohetik jeiki eta iraganbidean barrera abiatu nintzen. Pasioloaren amaieran jendez beteriko gela bat zegoen. Eta -sorpresa ikaragarriak ematen ditu bizitzak- hara non aurkitzen dudan Amilkar Barka Haundia, Kartagok inoiz izan duen buruzagirik onena, bazter batean jezarrita leihotik at begira, kolore iluneko likidoa edaten.

Nire betiko lekuan jezarrita nengoela agertu zen. Izkinako supermerkatu kutreko ardorik merkeena edaten nentzen, leihotik lekorera so, bera noiz etorriko zain. Ezen bai bait nekien une batetik bestera iristekoa zela. Bere taupaden hotsa geroz eta ozenago entzun nezakeen. Eta han agertu zen, atea gurutzatu eta guztioi begira, berak ohi zuen moduan, behialako harrotasun eta planta lerdin berberarekin. Ez zen kasik aldatu Zamako guduzelajian azkenekoz ikusi nuenetik. Berak ere laister errepatatu zuen nire presentzian eta harriduraz begiratu zidan, begiak itaunez beterik zituela. Eta nik berbetan hasi nahi nuen eta ezin, zera, Elegido ustelak mihia arras baldartu zidala eta zera. Anibal, tira, zu ere hemen, eta negarrari eman nion. Geroxeago, pixkat lasaitu ondoren, zerbait murmurikatzea lortu nuen, ahopeka, tira, orakuloak ere ez dira lehen bezalakoak, niri ere ziria sartu zidaten, giza-komertzianteei saldu diote euren burua iragarle faltsu horiek eta hara, hemen ni ere, niri ere inperio berria agindu bait zidaten, eta usurpaturiko lurrik berreskuratuko genituela, baina zera, kaka zaharra, guztia ustelduta dago. Itxaropenarentzat lekurik balego buhame eta hungrianoen gurdietan gorderik legoke, baina hauek ere baztertu egiten dituzte. Lehen behintzat posible zen amets egitea, Amilkar Barka Haundia edota Anibal Ausarta ginela aldarrikatzea, orain hori ere galerazi digute, nortzuk eta amets ez ez dakitenek. Akabo guztia, hotzak habitatzen gaitu gu ere, zer egin orduan; zatoz Anibal, mendarik ezean botila berria ekarriko dut eta leiho ondoko lekutxoan jezarru eta kanpora begiratzean kartagotarron hurrengo garaipena ikusi ahal izango dugu, eta gazela eta gameluak gure begien aurretik pasatuko dira berriz, badirelako -gutariko bakoitza den mikrokosmos horretako zoko ezkuturen batean- inork ebatsi ezin dizkigun benetazko profeziak. Ez al duzu uste, Anibal?